



Gerra krimenak

Sakontzeko, irakurri: «Gerra krimenak Israel-Palestina gerran»

Gerrak iraun bitartean, hainbat gerra krimen erregistratu dira, nazioarteko zuzenbidearen arabera tipifikatuak. Zibilen hilketa indiskriminatua da horietako bat, baita ikastetxeak eta ospitaleak eraso egitea ere. Palestinako Defentsa Zibileko bozeramaile Mahmoud Basalek nabarmendu zuenez, «Honelako sarraskirik ez da izan gure historian. Aurreko gerretan triskantzak izan ditugu, baina hau genozidio baten parekoa da». Urri erdialdean, NBEk adierazi zuen Gazakoa «inoiz ez bezalako giza hondamendia» zela. Abendu hasieran, Michael Fakhri NBERen Gazako Erreportari Berezia, herritarren janaria eskuratzeko ezintasunari loturik, «genozidio» deitu zion gertatzen ari zenari, gogora ekarriz Gazako palestinar guztiak gosetea jasaten ari direla. 2024ko apirilaren 1ean, Israelen dronen eraso batek gosetea arintzen laguntzen zuten zazpi boluntario hil zituzten, World Central Kitchen (WCK) delako erakunde humanitarioak, tartean zirela Erresuma Batuko, AEBko eta Australiako kideak. Israelek «dolumina zintzoa» agertu zuen hilketagatik, eta adierazi ikerketa bat abiatu zuela.

Palestina eta Ekialde Hurbila sutan (2023-2024)

Urtebeteko kronika Euskarazko Wikipedian

Gazako suntsipenaren urriko irudiak



ospitaleak jo-puntuan jarri zituen, 2.000 pazientetik gorako 22 ospitale husteko agindua emanaz, Osasunaren Munduko Erakundeak gogor gaitzetsi zuenez. Al-Ahli Arabi ospitaleak hustua izateko Israelen hainbat ohartarazpen jaso zituen. Israelen bonbardaketen artean, urriaren 17an, leherketa batek Zerrendako iparraldeko Al-Ahli Arabi ospitala partzial-

Palestina aipatzen duten mapa historikoak



Porponio Melaren mapa (c. 43)



Notitia Dignitatum, 410



Tabula Rogeriana, 1154